

Tomas Ondarra eta Jon Uriarte kazetariak Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin sortu dute *De Bizkaia de todo la vida* liburua. Iazko Gabonetan arrakasta handia izan zuen argitalpenak, eta lurraldean gehien saldu zen liburua izan zen. Turismo-gidaliburu gisa eta memoria kolektiboari eginiko omenaldi gisa sortua da, eta Bizkaiko paisaia, ondare eta kultura aberastasuna jasotzen du. Helburua da bisitariei eta bizkaitarrei hori guztia ezagutaraztea.


Proiektuak denbora luzea zeraman inprimatzeko zain, «egin gabeko gauzen zerrendan». Helburu argia du: justizia egitea atzo elkarrekin bizi izandakoari, eta gogoratzea izan ginenaren ondorio garena, hala izatean nola egotean, jatean eta edatean, lan egitean eta gozatzean. Egileek diote, xehetasunei buruzko eztabaidak egonik ere, Bizkaiaren funtsa ez dela eztabaidagai. Jaurerria berezia izan denez, Bizkaia lurralde plurala da eta izango da, kontinente handiek — haietako batzuk oraindik ezezagunak — osatutako planeta txikia.

Turismoa sustatzeko foru diputatu Sonia Perez Ezquerrak adierazi duenez, «liburu honek lurraldearen turismo sustapenaren funtsa islatzen du. Lehenik eta behin, Bizkaia Bizkaiko jendearentzat da, eta, bidaiari garen aldetik, hausnartu behar dugu gure lurraldea ezagutzen ote dugun, hura ezagutzeak berekin ekarriko baitu zaintzea. Bestalde, lan honen beste helburu bat ere ezarri dute: Euskal Herriko eta kanpoko bisitariei eskualdeak ezagutarazita, hara joateko gonbita egitea, hiriburuan bakarrik gera ez daitezten, lurralde osoan ikusteko, ezagutzeko eta gozatzeko asko baitago. Hala, turismoaren onurak banatu egiten dira, eta jarduera urtaro jakin batzuetara mugatu gabe, hura zabaldu eta deszentralizazioa sustatzen da, guztion etxeari balioa emateaz gainera».

BIZKAIAN ZEHAR HARRO IBILTZEKO ERAKUSKETA BAT

Liburuaren arrakastaren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak iragarri du erakusketa bat atonduko duela, zeina modu ibiltarian ibiliko den 2025. urtean lurraldean zehar, maiatzean Expo-vacaciones azokan aurkeztu ondoren. Erakusketak, obraren edukiak herritarrengana hurbiltzeaz gainera, Bizkaikoa izatearen harrotasuna indartuko du, lurraldea osatzen duten aparteko elementuak nabarmenduko baititu. Lurraldeko

DE BIZKAIA DE TODA LA VIDA



Jon Uriarte • Tomás Ondarra

De Bizkaia de todo la vida liburuaren azala. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Bizkaiko aberastasuna ikusgai

'De Bizkaia de toda la vida', Bizkaiaren gehien saldu den liburua erakusketa ibiltari bihurtu da orain. Lurraldeko eskualde guztietan ikusi ahal izango da, maiatzetik aurrera.



Goiko irudian, Santa Agedako kantuetan, eta beheko irudian, Lekeitioko Kaxarranka. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

txoko bakoitzaren nortasuna islatzeko eta aldarrikatzeko aukera izango da.

Erakusketa-ibilbideari esker, bisitariek Bizkaiko 65 gai adierazgarri ezagutuko dituzte, hala nola ikono enblematikoenak —Gernikako Arbola eta haritz hostoa—, edo hain ezagunak ez diren baina oso esanguratsuak diren elementuak —Gernikako piperra edo pil-pila—. Liburuan, eta orain erakusketan, memoria kolektiboan baztertuta geratu ziren leku eta alderdi kulturalak berreskuratu dituzte, eta gaur egunera ekartzen dituzte kontakizun baten bidez.

BIDAIA BAT HISTORIAN, KULTURAN ETA GASTRONOMIAN

Erakusketari esker, ibilbide bat egin ahal izango da Bizkaiaren historian eta identitatean funtsezkoak diren espazioetatik. Santimamiñe eta Pozalagua kobazuloetatik hasi eta Mikeldi eskultura misterioitsu eta Oma basoraino. Gidari izango ditugu Matxixakoko eta Santa Katalinako itsasargiak, eta Gaztelugatxe, Gorbeaiako Gurutzea eta Bizkaiko Balboaia ikusiko ditugu. Urduñako, Ziortzako eta Urkiolako tenpluei ere omenaldia egingo zaie, bai erlijiosoei, bai kondairetakoei, Arretxinagako harri miragarriak ahaztu gabe. Anbotoko Damak eta Basoetako jaunak baimena ematen badigute, Otzarretako pagadi magikoan edo Argiñetako nekropolian patxadaz ibili daiteke.

Ez dira alde batera utziko lurraldearen industria eta arkitektura historiaren

funtsezko alderdiak. Hala nola El Pobal burdinola, Euskalduna ontziola eta Sestaoko Labe Garaiak, baita San Mames zaharra eta berria, Abando-Indalecio

Bizkaian zeharreko bidaia hau iraganari eginiko omenaldia izateaz gain, oraina eta etorkizuna balioesteko gonbidapena da

Prieto geltokia eta Viviendas Bizkaia ere. Ez dira ahaztuko, ez, ikono ezagunak, Bizkaiko Zubia, Santurtziko sardina saltzaileak edo iraganean meategiz eta beharginez beteta egon zen Zugaztietan. Beste kokagune batzuk ere egongo dira, hala nola Omako basoa, Butroeko gaztelua edo Landetxo Goikoa baserria, Urdaibaiko Erreserbako flysch ikusgarriekin batera.

ZAPOREAK, SOINUAK ETA TRADIZIOAK

Liburuak eta erakusketak ez dute ahazten gastronomia Bizkaiaren nortasunaren funtsezko parte bat dela. Izan ere, obran gastronomiari buruzko kapitulu gehiago daude beste gai batzuei buruzkoak baino, «janarirako gustua baita aberririk batue-na». Zapore eta usainen bidez, bizkaitarrek erabat identifikatzen dira, eta erakusketak honek lurrahekiko lotura horiek gogoraraztea ahalbidetuko du.

Tradizio bizientzat ere lekua egongo da. Bisitariek aukera izango dute Lekei-

tioko Kaxarrankan, Santa Agedako kantuetan eta OLBE Opera Lagunen Bilboko Elkartearen ahots ospetsuetan murgiltzeko. Hori guztia gasolinoan, azulitoan, Bizkaibusean edo bizikletaz zeharkatu daitekeen lurralde batean. Eta garraio publikoan bada, hobeto, hala beti egongo baita kalimotxo batez eta talo txistordun batez gozatzeko denbora.

Ibilbide honen bidez, erakusketak hunkitu, harritu eta bizkaitarrek beren lurragatik sentitzen duten harrotasuna indartu nahi du. Bizkaian zeharreko bidaia hau iraganari eginiko omenaldia izateaz gainera, gure oraina eta etorkizuna gehiago gozatzeko eta balioesteko gonbidapena ere izango da. ●

Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.bizkaia.eus

